



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA
2018.02.27

Tolosako Udaletxean, 2018ko otsailaren 27an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de febrero de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Ibai Iriarte San Vicente
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Ez bertartatutako zinegotzia:
Lore Agirre Zipitria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko urtarrilaren 30eko Ohiko Osoko bilkurakoa.
2. Ekintzaileen *coworking* Oriaburu gunea arautzen duen ordenantzaren testu bateginaren onespena.

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 30 de enero de 2018.
2. Aprobación del texto refundido de la ordenanza reguladora del espacio *coworking* Oriaburu para el emprendizaje.



- | | |
|---|---|
| 3. Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren aldaketa onartzea. | 3. Aprobación de la modificación de la Norma de Ejecución presupuestaria. |
| 4. Dekretu hauen berri ematea: 2017/2165 (2017/16 kreditu transferentzia), 2017/2255 (2017/17 kreditu gaikuntza), 2017/2319 (2017/18 kreditu gehigarria), 2339/2017 (2017/19 kreditu gaikuntza) eta 2017/2361 (2017/20 kreditu transferentzia). | 4. Dar cuenta de los siguientes decretos: 2017/2165 (Crédito de transferencia 2017/16), 2017/2255 (Habilitación de crédito 2017/17), 2017/2319 (crédito adicional 2017/18), 2339/2017 (habilitación de crédito 2017/19) y 2017/2361 (2017/20 crédito de transferencia). |
| 5. Dekretu honen berri ematea: 2017/2238 (4/2017 Kreditu gehigarriak). lurreamendi egoitza. | 5. Dar cuenta del decreto 2017/2238 (crédito adicional 4/2017 de lurreamendi egoitza) |
| 6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko urtarrilaren 1etik 31ra (2018/1-2018/273). | 6. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de enero de 2018 (2018/1-2018/273). |
| 7. 2018ko martxoaren 8ko adierazpen instituzionala. | 7. Declaración institucional del 8 de marzo |
| 8. EAJ-PNV taldeak aukezturiko mozioa: Saharar Errepublikak Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrena. | 8. Moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV: 42 aniversario de la proclamación de la República Democrática Árabe Saharaui. |
| 9. Bandera Espainiarraren inguruan EAJ-PNV taldeak aurkezturiko mozioa. | 9. Moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV sobre la bandera española. |
| 10. Zinegotzi baten kargu-uztearen berri ematea. | 10. Dar cuenta de la dimisión del cargo de concejal. |
| 11. Galderak eta eskaerak. | 11. Ruegos y preguntas. |

Alkateak, lehenik, batzarrari hasiera eman aurretik, honako hau adierazi du:

“Hasiera emango diogu batzarrari izan ere, denok gaude dagoeneko. Beno ez daukagu Lore Agirre. Atzo bozeramaileen bilera egin genuenean Lore Agirrekin komentatzen aritu ginen seguraski martxoko osoko bilkuran ez zela izango baina ez genuen pentsatu gaurkoan egongo ez zenik. Familia izan du, beraz, zorionak denon partez.”

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:



TOLOSAKO
UDALA

- | | |
|---|---|
| 1. <u>Ondorengo akta onartzea:</u>
<u>2018ko urtarrilaren 30eko Ohiko</u>
<u>Osoko Bilkurakoa.</u> | 1. <u>Aprobación de la siguiente acta:</u>
<u>Sesión ordinaria del 30 de enero de</u>
<u>2018.</u> |
|---|---|

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

- | | |
|---|--|
| 2. <u>Ekintzaileen <i>coworking</i> Oriaburu</u>
<u>gunea arautzen duen ordenantzaren</u>
<u>testu bateginaren onespena.</u> | 2. <u>Aprobación del texto refundido de la</u>
<u>ordenanza reguladora del espacio</u>
<u>coworking Oriaburu para el</u>
<u>emprendizaje.</u> |
|---|--|

Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV): “ *Idazkariak esan duen bezala gaur egun ekartzen duguna da ekintzaileen *coworking* Oriaburu gunea arautzen duen ordenantzaren testu bategina. Azkenengo Garapen Ekonomiko batzordean aipatu zen bezala barneratuta azaltzen dira azkenengo momentuan egin behar izan diren zuzenketa teknikoak. Ez da berria aipatzen badugu berriro Udal gobernu honentzat Garapen Ekonomikoa dela ildo estrategikoa eta Oriaburu eraikin horretara bideratu izan nahi dugu kasu honetan, *coworking* espazioa kokatuta. Gaur egun, Oriaburu eraikina jada txukuna dago. 2016ko eta 2017 urtean burutu diren obrak egina daude. Beheko solairuan Tolosa&Co-ren Elkarte dago eta aldameneko espazioan aretoa jarri da eta azken hilabete hauetan erabilia izanda formakuntza ikastaro ezberdinak egiteko merkatarientzat, Tolosaldea Garatzenek ere antolatu dute Teknika asteburua eta pentsatuta daukate Lehiberri egoitzan ematen diren formakuntza ikastaro batzuk beheko eraikuntzan ere ematea. Guretzat aurten antolatu ahal izan genituen lehenengo aldiz, Enpresa eguna, baita ere, ospatu genuen bertan eta gerturatu zitzaizkigun 28 enpresari. Behin betiko ordenantza eskuan daukagunean deialdia egingo genuke. Deialdi ireki bat izango da eta irekia denboran eta proiektua jasotzeko jarriko dugun epea 40 bat egun. Han jasotzen diren proiektuak sartuko ditugu osatuko dugun kudeaketa batzorde batean, non egongo diren sei bat kide, ordezkari: hiru udaletxetik jarrita eta beste hiru Tolosaldea Garatzenetik hartutakoak. Sartzen diren ekintzaileek izango dute 50 €-ko kanona eta hasieran behar beharrezkoa den tutoretza, aholkularitza eta dinamizazio ekintzak eskainiko zaizkie. Hau da, Tolosaldea Garatzenetik teknikariak bideratutakoak. Bukatzeko aipatu Oriaburu guretzat oso inportantea dela eta nolabait egin nahi genuena zen han dauden ekintzaileen proiektuen jarraipena eta horretarako osatuko dugu mahai politiko – teknikoa non hilabetean behin bilduko dena eta han ikusiko dugu pixka bat proiektuak eta ekintzaileen jarrera nolakoa den gure babes eta beraien beharrak mahai gainean jartzeko.”*

...Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): “*EHBildu irrikitan dago ikustea noiz posible*



den Oriaburun jendean lanean ikustea eta bere proiektuak aurrera atera nahi dituzten pertsona horiek. Pentsatzen dugu bereziki gazte jendea izango dela. Hala ere, gogorarazi nahi dut aurreko legealdian sortutako proiektu bat dela. Ongi da legealdi honetan interes berezia adierazi izana proiektu honen inguruan. Espero dezagun hurrengo legealdietan ere aurrera ateratzea. Gure gustora baino gehiago luzatu da, egia da arazo tekniko batzuk tartean egon direla eta bueno espero dezagun orain publiko aurrean jarri ondoren eta kontrako zailtasunik ez badaude, ahalik eta azkarren lehiaketa martxan jartzea dugun, ea bertan jendea lanean ikusi ahal dugun.”

EKONOMIA SUSTATZEKO BATZORDEAK 2018KO OTSAILAREN 21EAN EMANDAKO DIKTAMENA.

“I. Coworking (kolana) lan egiteko modu bat da, profesional independenteei, ekintzaileei eta sektore desberdinetako enpresa txiki eta ertainei lanerako gune bera, fisiko nahiz birtuala, partekatzeko aukera ematen diena, beren proiektu profesionalak modu independentean gara ditzaten, proiektu komunak sustatzen dituzten bitartean.

Coworking-ak sustatzen ditu sektore desberdinetako profesionalen arteko harreman egonkorak, eta harreman horiek bezero-hornitzaile arteko harreman bihur daitezke azkenean. Nolanahi ere, ohikoa da erkidego bateko kide izateko sentimendua sortzea, lotura eraginkorretatik harantzago, coworking-guneetara maiz joaten diren langileen artean.

Coworking-ak irtenbide bat eskaintzen dio etxean lan egiteko esperientziak langile independente askori, edo mikroenpresei ere, sortzen dien bakardade-arazoari.

II. Aurrekari hauek ikusirik Tolosako Udalak holako programa martxan jartzeko ordenantza egiteari ekin zion eta behin betiko Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea arautu zuen eta Ordenantza hau, 2017ko ekainaren 27ko osoko bilkuran onartu zen.

III. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubideren oinarriak arautzen dituenaren arabera 49.artikuluak b eta c puntuak dioten bezala, “b) Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.” eta erreklamaziorik gertatu ez zenez, 2017ko urriaren 9an aipatutako Ordenantza GAOn argitaratu zen.

IV. Epe bat igarota eta gauzatu baino lehen, argitaratutako ordenantzako testuak, akats eta zehaztugabetasunak zeuzkala ikusirik, zerbitzu juridikoen



TOLOSAKO
UDALA

aipamen eta aholkuak jarraituz, sail zerbitzu honek testuategina osatu du.

V. Programa hori martxan jartzeko dauden interes sozialeko arazoak eta premia direla eta, proposatzen da testuategina osatzea. Programa honetan parte hartu nahi duten interesatu guztiei lehenbailehen aukera eman ahal izateko helburua delarik.

VI. Beraz, eta Apirilaren 2ko, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 legeak, 22.2. artikulua (arabera), proposatzen da, testuategina hurrengo Osoko bilkurako gai-zerrendan sartzea, bere onarpena lortzeko.

Hori guztia ikusirik, Ekonomia Sustatzeko Batzordeak, Olatz Peon, Begoña Tolosa eta Iñaki Irazabalbeitiaren aldeko botoekin, hauxe da eman duen

DIKTAMENA

Lehenik.- Ekintzaileen Coworking Oriaburu gunea arautzen duen ordenantzaren testuategina onartzea.

Bigarrenik.- Ordenantzaren testua ondorengo hauetan argitaratzea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udaleko web orrian eta Gardentasun atarian.”

EKINTZAILEEN COWORKING ORIABURU GUNEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

TESTU BATEGINA

Aurkibidea

- 1. Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunearen izaera.*
- 2. Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko ekintzaitza-proiektuen inkubagailuaren izaera.*
- 3. Helburua.*
- 4. Onurak.*
- 5. Onuradunak eta baldintzak.*
- 6. Sartzeko eskubidea emateko prozedura.*
- 7. Dokumentazioa.*
- 8. Erantzukizun zibileko aseguruia.*
- 9. Emakida kontratua.*
- 10. Egonaldi erregimena.*



TOLOSAKO
UDALA

11. Kudeaketa eta administrazioa.
12. Onuradunen betebeharrak orokorrak.
13. Izaera pertsonaleko datuen babesa.
14. Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunearen logotipoa.
15. Aplikatu beharreko araudia.

I. eranskina: Emakidadunak ordaindu beharreko kanona

1. COWORKING ORIABURU GUNEA.

2017ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran Tolosako Udalak, Coworking Oriaburara sartzeko 2017rako araudi erregulatzailerak onartu zuen.

2. EKINTZAILEEN COWORKING ORIABURU GUNeko EKINTZAILTZETA - PROIEKTUEN INKUBAGAILUAREN IZAERA.

Coworking Oriaburu Gunea Ekintzaileen erreferentziazko zentro izatearen asmoa da, berrikuntza eta ekimenak garatzeko, erreferentzia bat startupak, aplikazio berriak... sortzeko. Azken batean, Tolosan berrikuntza eta sormen zentro bat izatearen helburua da, elkarlanean aritu edo lagundu nahi duen beste edozein entitatarentzat irekia ere egongo dena .

Era berean, autoenpleguko proiektuak garatzeko lankidetzako gune bat izan nahi du, gizarte-ekintzailtzetara, lankidetzara eta sarean lan egitera bideratua. Bestalde, Tolosan dagoen krisi ekonomikoari eta langabezi arazoari aurre egiteari helburu du, eta horretarako ikuspegia da balio kooperatiboak eta ondasun erkidearen balioak dituen ekonomia sozial, inklusibo eta solidarioaren ikuspegia.

2.- Bikaina. Ezaugarri hau funtsezko bi esparrutan islatzen da:

Inkubagailuaren input-ean: Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunearekin harremana dutenek edo bertan jardueraren bat egiten dutenek (ekintzaileak, startupak, eratutako enpresak, inbertitzaile profesionalak...) ezaugarri holistikoago batzuk izan behar dituzte, lotuta egongo direnak komunikazioarekin, lankidetzarekin, taldean lan egitearekin eta enpatia sortzearekin. Jarrera integratzailea izan behar dute, barne hartuko dituen prozesuak, haren protagonistak eta haren testuinguruak.

- *Output-ean, helburua da Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneatik ateratzen diren startupak eta profesionalak bikainak izatea eta herritarrentzat sortzen dituzten produktuak eta zerbitzuak ere bikainak izatea, eta kontuan izan dezatela emakumeen eta gizonen berdintasuna, aurrera egiteko genero-aurreiritzi, rol eta estereotipoen ezabaketan.*

2.2. Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneako erabiltzaileak.

Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunean proiektu eta jarduera berritzaileak garatuko dira, hedatzeko potentzial handia dutenak.



TOLOSAKO
UDALA

Zentro honek profil hauetako erabiltzaileak ditu jomugan:

- Ekintzaileak, enpresak, startupak, eremu horiei lotutako proiektuak dituztenak, produktu eta zerbitzu berritzaileak dituztenak, merkatu global bati zuzenduak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko dutenak.
- Ordenantzan zehaztutako profiletako baten bat betetzen duten profesionalak.
- Bertan kokatutako proiektuen garapenean eta azelerazioan laguntzen duten erakundeak eta enpresak eta/edo inkubagailuaren funtzioak betetzen laguntzen dutenak.
- Izaera estrategikoa duten enpresa edo proiektuak, Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko Kudeaketa Batzordeak onartutakoak. Iraupen mugatuko emakida kontratu bereziak ezarriko dira haiekin.
- Unibertsitateetako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleak, ekonomia arloarekin lotutako ekimenak garatzen edo euren profil profesionala arlo horrekin lotutako lanbide prestakuntzetara bideratzen ari direnak

3. HELBURUA.

Ordenantza honen helburua da Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko ekintzailtzako inkubagailu aurreratura sartzeko zein eremua kudeatzeko arauak xedatzea. Helbide hau du guneak: Oriaburu zentroa, Pedro Tolosa pasealekua 2, 20400 Tolosa.

Ordenantza honetan jasotako neurrien helburua da Tolosan kokatu nahi duten enpresa-proiektuen eta startupen sustatzaileei, enpresei eta profesionalei laguntzea, eta bai indarrean dauden hitzarmenak dituzten prestakuntza ikastetxeetako ikasleei ere, euren enpresa jarduera eta/edo hazteko gaitasuna duten proiektu berritzaile berriak gara ditzaten. Horretarako, Enpresentzako Udal Eremu hau eskaini zaie euren proiektuak kokapen eta ingurune egokian gara ditzaten, ingurune lehiakorrean bizirik irauteko behar adinako trebetasun eta ezagutzekin merkatura irteteko aukera emango dien heldutasun maila lortu arte.

4. ONURAK.

4.1. Inkubazio zerbitzuak:

- Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko inkubagailuan lanerako postu bat edukitzea, jabari publikoaren emakida erregimenean. Erabiltzaileek honako hauek izango dituzte: norberaren erabilerarako eremu fisiko bat, mahaia eta aulkia; interneteko konexioa, Udalak herritarrei eskaintzen dien wifi publikoaren bidez; funtzio anitzeko inprimagailua; eraikineko espazio komunetara sartzeko aukera: bilera-gelak, erabilera anitzeko gelak, sukaldea-txokoa...). Emakidadunek Tolosako Udalari eskatu ahal izango diote beren telekomunikazio datuak eta ahots-linea kontratatze baimena.

- Espazioetarako lehentasunezko sarbidea, enpresa proiektuei lotuta dauden eta zentroan antolatzen diren dinamika, erakusketa, foro eta bestelako dinamizazio jardueretarako.



TOLOSAKO
UDALA

- *Proiektuaren tutorizazio zerbitzua eskuratzea, barne izanik Tolosako Udalak, Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen-agentziarekin elkarlanean, erabiltzaileen eskura jartzen dituen laguntza programak eta zerbitzuak, enpresak sortzeko eta modu lehiakorrean hobetzeko.*

- *Enpresek euren helbide soziala Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunean kokatu ahal izango dute.*

4.2. 4.2 Egonaldiaren iraupena

Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko gutxieneko egonaldia 6 hilabetekoa izango da eta, gehienez, 3 urtera luzatu ahal izango da.

Kasu guztietan Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko Kudeaketa Batzordeak zentroan kokatutako proiektu guztien urteko balorazioa egingo du, bertan jarraitzeari buruzko iritzia baloratu eta onesteko. Kudeaketa Batzordearen urteko balorazioa negatiboa bada, emakida kontratua deuseztatu egingo da.

Salbuespen gisa, Kudeaketa Batzordeak eskatuta eta Tolosako Udalak onartuta, egonaldiaren iraupenari buruzko baldintzak aldatu ahal izango dira, zentroan kokatutako proiektuen garapenaren arabera.

5. ONURADUNAK ETA BALDINTZAK.

5.1. Onuradunak

- *Enpresa berri bat sortzeko proiektua aurkezten duten ekintzaileak.*

- *Izaera estrategikoko proiektuak sustatzen dituzten pertsona juridikok, jada eraturik dauden enpresen proiektu estrategikoak edo martxan jarri baino lehenagoko fasean daudenenak. Haiekin iraupen mugatuko emakida kontratu bereziak ezarriko dira, unean uneko beharrezanaren arabera eta tokia erabilgarri dagoen aintzat hartuta.*

- *Unibertsitateetako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleak, ekonomia arloarekin lotutako ekimenak garatzen edo euren profil profesionala arlo horrekin lotutako lanbide prestakuntzetara bideratzen ari direnak.*

Horiek guztiek berritzaileak diren eta merkatu orokor batera bideratzen diren produktuen eta zerbitzuen eskaintza izan behar dute edo horretara bideratuta egon behar dute.

5.2. Inkubagailuan sartzeko baldintzak



TOLOSAKO
UDALA

a) *Enpresa proiektuak, enpresa moduan eratu aurretik:*

1.- *Ekintzaileek Negozio Plan eginda egotea, Tolosaldea Garatzen SAko Autoenplegu Zerbitzuan.*

2.- *Egunean egotea bai administrazio publikoekiko dagozkien zerga betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan ere.*

3.- *Ekintzaileak edo enpresa ekintzaileak aukera-berdintasunaren arloan arau-hauste larriagatik zigortuta ez egotea, epai irmoaren bitartez (SPKLTBaren 60.1 artikuluan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoaren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).*

b) *Eratuta dauden enpresak eta profesionalak:*

1.- *Sozietateak eratuta eta erregistratuta egotea, eta ondasun erkidegoak eratuta egotea eta identifikazio fiskaleko zenbakia edukitzea.*

2.- *Ekonomia Jardueren gaineko Zergan izena emanda egotea.*

3.- *Egunean egotea bai administrazio publikoekiko dagozkien zerga betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan ere.*

4.- *Enpresen kasuan, edukitzea eta aurkeztea proiektu bat berritzailea, hazteko gaitasuna duena eta merkatu orokorretan sartzeko gaitasuna duena. Profesionalen kasuan, balio erantsi handiko zerbitzuak eskaintzea zentroan kokatutako enpresei.*

5.- *Proiektu estrategiko berriak helbide fiskala Gipuzkoan izatea.*

6.- *Kanpo geldituko dira Erakunde eta Sozietate Publikoak eta/edo administrazioetako publikoek % 50 baino gehiagoan parte hartutako erakundeak.*

c) *Izaera estrategikoko proiektuak:*

Emakida kontratu bereziak izenpetu ahal izango dira, iraupen mugatukoak, izaera estrategikoko proiektuetarako, bai eratuta dauden enpresen proiektuetarako, bai eratu aurreko fasean dauden enpresen proiektuetarako ere. Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko Kudeaketa Batzordeak onartu beharko ditu, zentroan tokia erabilgarri dagoen aintzat hartuta eta enpresen unean uneko beharrianen arabera.



TOLOSAKO
UDALA

d) Unibertsitateetako eta/edo Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleak:

1.- Ikasle horiek euren ibilbide profesionala ekonomiarekin lotutako lanbide prestakuntzetara bideratzen aritzea, eta inkubagailuan garatutako proiektuetan eta jardueretan parte hartu ahal izatea; horretarako, hitzarmena eginda inkubagailuarekin lankidetzan aritzeko interesa duten ikastetxeekin.

Orokorrean, sentsibilizatu egingo da garapen iraunkorrarekin eta ingurumenaren babesa eta hobekuntza sustatzearekin lotutako jardunbide egokiei buruz, baita bizitza pertsonala, familiarikoa eta lanekoa enpresen barruan bateratzearekin lotutako ekintzei buruz ere. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zainduko da, eta sexu, arraza edo etnia jatorri, erlijio edo sineste, elbarritasun, adin edo sexu joeran oinarritutako bereizkeriarik ez dagoela begiratu. Azkenik, kontuan hartuko da Tolosaren eta Tolosaldearen egoera soziolinguistikoa eta euskararen arnagune izaera hizkuntza ofizial biak erabiltzeko unean.

7. DOKUMENTAZIOA.

8. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA.

Emakida kontratua sinatu aurretik, 600.000 euroko Erantzukizun Zibileko Asegurua kontratatu beharko dute emakidadunek, jardueran aritzeak, instalatutako mekanismoen funtzionamenduak eta abarrek okupatutako eremuari, instalazio eta elementu komunei, hirugarrenei eta beste onuradun batzuei sor diezazkieketen kalte pertsonal eta materialak estaltzeko. Horrez gain, kontratatutako aseguruaren polizaren kopia bat entregatu beharko dute eta dokumentuen bidez justifikatu emakida kontratuaren indarraldian urteko primak ordaintzen dituztela.

Eremua okupatu aurretik, eta behin aurkeztu direnean nahitaezkoak diren dokumentuak (Erantzukizun Zibileko Asegurua kontratatu dela adierazten dutenak barne), Tolosako Udalak emakida kontratua izenpetuko du emakidadun bakoitzarekin, eta emakida kontratu horrek zehaztu eta mugatuko ditu eremu hori erabiltzeko emakida arautzeko baldintza nagusiak eta partikularrak.

10. EGONALDI ERREGIMENA.

A) Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko enpresa eremuak erabiltzeari dagozkion arau



TOLOSAKO
UDALA

komunak.

- 1. Ordenantza hau 7. puntuari ezarrita dagoenaren mende egongo da eremuak erabiltzea.*
 - 2. Eremua erabiltzea pertsonala eta transferiezina da; horrenbestez, ezin da laga ez osorik ez zati batean, ez dohainik, ez behin-behinean ere.*
 - 3. Jarduera hasteko eta garatzeko behar diren administrazio lizentziak eta baimenak edukitzea ezinbestekoa izango da, jarduera honi dagokionez indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.*
 - 4. Gunearen emakida jakinarazi den egunetik aurrera zenbatuta, gehienaz ere hilabete bateko epean sinatu beharko da emakida kontratua.*
 - 5. Hitzarmena sinatu ondoren, hilabete igaro baino lehenago hasi beharko dute beren jarduera emakida gunean.*
 - 6. Benetako erabilera eman beharko zaio eremuari; salbuespen gisa, eta proposamen arrazoituaren bidez, Tolosako Udalak baimendu ahal izango du aldi baterako etetea erabilera.*
- Behin baimendutako aldi baterako etetearen epea igaroz gero edo, gehienaz ere, 3 hilabete baino gehiago pasa badira onartu ez den benetako erabilerarik gabe, emakidaduna behartuta egongo da utzi zizaion baldintza berberetan itzultzeraz.*
- 7. Behin amaitu denean egonaldia dagokion eremuan, onuradunak bere ondasun eta gauza guztiak eraman beharko ditu handik. Ez badu hala egiten, Tolosako Udalak kendu eta gorde ahal izango ditu, eta, egonaldi hori amaitu denetik hiru hilabete igarotzen direnean, suntsitu ahal izango ditu.*

B) Elementu komunak eta ordutegiari daogienez:

- Elementu komunak:*

Elementu komuntzat hartzen dira, izaeraren arabera, emakidadun guztiek erabiltzekoak eta aprobetxatzekoak direnak edo erabilera orokorrekoak direnak

Emakidadunek elementu komunak erabiltzeko eskubidea dute, baldin eta ez badiete eragozten erabiltzea gainerakoei eta Tolosako Udalak ezartzen dituen arauen arabera egiten badute. Udalak emango die irtenbidea horri dagokionez sortzen diren gatazkei.

- Ordutegia:*



TOLOSAKO
UDALA

Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunea zabalik egongo da 7 egun/ 24 ordu.

11. KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIOA.

Tolosako Udala arduratuko da kudeaketaz eta administrazioaz. Horretarako, zeregin hauek beteko ditu:

- *Elementu komunen mantentze-lanak, funtzionamendua eta kontserbazioa.*
- *Emakidadunei lehen deskribatutako gutxieneko eta aukerako zerbitzuak ematea.*
- *Emakidadunei fakturak eta kobrantzak egitea.*
- *Gutxieneko zerbitzu indibidualak mantentzea, baldin eta haien erabilera egokiko arauei erreparatuta behar bezala erabiltzen badira.*
- *Euskararen normalizazioaren alorrean aholkua ematea.*

12.ONURADUNEN BETEBEHAR OROKORRAK .

12.1. Onuradunen betebeharrak

- *Fidantza gisa, ezarritako kanonaren bi hilabeteko epeari dagokion kopurua*
- *Programa honen xedeari dagokionez, bere eginkizunak betetzean eskatzen zaion informazioa ematea.*

Zehazki:

- **Enpresa eta autonomoentzat**

Jatorrizko ziurtagiri hauek: Administrazio Publikoen aurreko zerga-arloko betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere, egunean dituztela egiaztatzen dutenak. Bestelako kasuan, Tolosako udala baimentzea informazio hau kontsulta dezala.

BEZaren hiru hileroko aitortpena. Ereduak: (303,310 y 311).

PFEZaren hiru hileroko aitortpena. Ereduak: (130, 131).

Atxikipen eta konturako sarreraren hiru hileroko aitortpena. Ereduak: (111, 115).

Urteko Laburpenen Aitorpenak. Ereduak: (130 y 390).

Hirugarrenekiko eragiketen urteroko aitortpena. Eredua: 347.



TOLOSAKO
UDALA

PFEZaren (D-100 eredua) urteroko aitorpena

Ikasleentzat

Talde sustatzaileak sinatutako zinpeko aitorpena proiektuaren garapen-mailaren gainean.

Talde sustatzaileak sinatutako zinpeko aitorpena proiektuaren garapen-mailaren gainean.

- Tolosako Udalarekin itundutako baldintzak direla-eta, edozein aldaketa gertatzen bada, garaiz ematea horren berri.*
- Instalazioak ondo erabiltzea, eta bai elementu komunak eta gutxieneko zerbitzuak ere, bakarkakoak.*
- Espazio bakoitzeko segurtasuna dagokion emakida kontratuaren erantzukizuna izango da.*
- Eta, oro har, ordenantza hontan seinalatzen diren guztiak, eta bai emakida kontratuan adierazten diren betebeharrak ere.*

12.2 Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea

Laneko arriskuen prebentziorako araudi orokorra bete beharko dute emakidadunek.

12.3 Tabakismoari aurre egiteko osasun neurrien Legea

Tabakismoari aurre egiteko osasun neurrien eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen Legea (28/2005 Legea, abenduaren 26koa) eta droga mendekotasunaren arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketaren otsailaren 3ko 1/2011 Legea betez, ezingo da erre zentroko instalazioetan, ez ordenantza honen emakidaren xede diren lan espazioetan ez haien elementu komunetan ere, aire zabaleko eremuetan izan ezik, halakorik badago.

12.4 Hizkuntza ofizial biren erabilera.

Emakidadunek hizkuntza ofizial biren erabilerarako Tolosako udalak dituen irizpideak aplikatu beharko dituzte bere jardunean honelako alorretan besteak beste: bezero eta hornitzaileekiko harremanetan, errokulazioan, komunikazio-euskarrietan (esku-orri, webgune, faktura, aurrekontu, bisita txartel...)

Oriaburu Guneko emakidadunek Tolosako udalak esparru sozio-ekonomikoan euskara normalizatzeko ematen dituen diru-laguntzetan lehentasuna izango dute.

Baina testua euskara hutsean idatziko da kasu hauetan:



TOLOSAKO
UDALA

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Esanahi argitzen duen piktograma batek lagundurik dagoenena.
- Euskarazko hitzak ezagunak direnean (Udaltzaingoa, sarrera, irteera...)

12.5 Ez betetzea eta ondorioak

Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarra izango da organo eskuduna emakida deuseztatzeko, Ordenantza honetan edota aplikagarri zaion legerian xedaturiko betebeharrak ez betetzea gatik. Ebazpen horren aurretik, Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneako Kudeaketa Batzordeak gaiari buruzko txostena egingo du. Halaber, ebazpena hartu aurretik audientzia emango zaio interesatuari.

Emakidadunek ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz emakida deusestatutzat deklaratzeko nahikoa izango da, dagokion kanona epe barruan ordaindu gabe lehen aldiz utzi duenean, emakidadunari hori jakinarazi izana. Edozein kasutan, entzunaldi izapidea bermatuko da.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasota dagoenaren arabera, Tolosako Udalak jakinarazi behar du ordenantza honen izapideak bideratzetik sortzen diren dokumentuetan jasotzen diren izaera pertsonaleko datuak Tolosako Udaleko datu fitxategietan sartuko direla (Plaza Zaharra 2). Helburua izango da, zerbitzu honen kudeaketa erraztea.

Era guztietan, interesatuek emandako datuak eskuratzeko aukera izango dute, eta nolana ere, Legeak ezarritako eran, baita datuok zuzentzeko, aurkatzeko edo ezeztatzeko aukera ere; horretarako, Tolosako udalari idatzizko komunikazio bat bidali behar diote datu hauekin: Izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

14. EKINTZAILEEN COWORKING ORIABURU GUNEAREN LOGOTIPOAREN PUBLIZITATEA.

Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunearen logotipoa, baita adieraziko diren gainerakoak ere, onuradunek sortutako material inprimatuetan agerraraziko dituzte (kartelak, liburuxkak, informazio orriak...), oroitzapenezko plaketan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezko baliabideetan edo idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan.

Era berean, bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili beharko dira zuzenean diruz laguntzen den programaren edo jardueraren publizitate elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan. Halaber, diru-laguntzaren xedea den jarduerari lotutako sustapeneko interbentzio publikoak eta megafoniaz ematen diren mezuak (ematekotan) euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira, ordena horretan.



TOLOSAKO
UDALA

Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material orotan, baldintza hauek bete beharko dira: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta rol-aniztasuna eta genero-identitateak jasoko dituen irudia sustatzea.

15. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Ordenantza honek arautuko du coworking gunearen emakida. Halaber, Ordenantzak arautzen ez dituen gaiei dagokienez, ondoko hauek izango dira aplikagarriak:

- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.*
- Administrazio Publikoetako Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legea, eta bere Erregelamendua.*
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.*
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea eta Sektore Publikoko Araubidea arautzen dituen legeria.*

I. eranskina: Emakidadunek ordaindu beharreko kanona.

Hilero ordaindu behar den kanona pertsonako eta laneko modulu-gune bakoitzeko: 50 euro.

Kanona ordaintzen hasiko dira jabari publikoaren emakida kontratua izenpetu ondoren.

Aparteko txartelek kudeatua eta kopiatzearen kostua izango da 10 €/txarteleko.

*Azkenik, adierazi behar da freelance garatzaile kasuan, eta bai hitzarmena indarrean duten ikastetxeetako ikasleen kasuan ere, **EKINTZAILEEN COWORKING ORIABURU GUNEA** dohainik eskainiko dela, baldin eta helburu horretarako egokitutako espazioetan tokirik badago erabilgarri.*

Tolosa, 2018ko martxoaren 13a

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal



TOLOSAKO
UDALA

“2.- Lotura juridikoko maila hauek ezartzen dira:

- a) 1. kapitulua: lotura kapitulu mailan ezartzen da pertsonalari dagozkion gastuetan bakarrik*
- b) 2. kapitulua: lotura kapitulu eta programa mailan ezartzen da ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketei dagozkien gastuetan.*
- c) 3. eta 9. kapituluak: lotura organo mailan soilik ezartzen da kapitulu horietako partida guztien artean.*
- d) 4., 6., 7., 8. eta 9. kapituluak: lotura programa eta kontzeptu mailan ezartzen da.*
- e) Aurrekoetan ezarritakoaren salbuespen izango dira ondorengo partiden loturak:*

- *0500.491.01.231.00 partida 0500. 791.01.231.00. partidarekin*
- *0700.601.07.414.00 partida beste edozeinekin organo, kapitulu eta azpiprogramaren mailan.*
- **0700.421.01.162.10, 0700.421.01.162.20 eta 0700.421.01.162.30 beraien artean.”**

Beraz, ondorengo diktaminatu eta proposatzen du:

Lehen.- Osoko Bilkurak ondorengo puntua atxikitzea 2018ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6.2. b) artikuluan:

“e) Aurrekoetan ezarritakoaren salbuespen izango dira ondorengo partiden loturak:

...

- *0700.421.01.162.10, 0700.421.01.162.20 eta 0700.421.01.162.30 beraien artean.”*

Honela bozkatu dute:

Begoña Tolosa (EAJ): aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): aldeko botoa
Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): aldeko botoa

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren aldaketa hamabost lanegunez. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.”



Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Egulaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren aldaketa.

4. Dekretu hauen berri ematea: 2017/2165 (2017/16 kreditu transferentzia), 2017/2255 (2017/17 kreditu gaikuntza), 2017/2319 (2017/18 kreditu gehigarria), 2339/2017 (2017/19 kreditu gaikuntza) eta 2017/2361 (2017/20 kreditu transferentzia).
4. Dar cuenta de los siguientes decretos: 2017/2165 (Crédito de transferencia 2017/16), 2017/2255 (habilitación de crédito 2017/17), 2017/2319 (crédito adicional 2017/18), 2339/2017 (habilitación de crédito 2017/19) y 2017/2361 (2017/20 crédito de transferencia).

OGASUN BATZORDEAK 2018KO URTARRILAREN 30EAN EMANDAKO IRIZPENA:

- 2017/2165 (2017/16 kreditu transferentzia) Dekretuaren jakinarazpena.

Hamaseigarren espedientea kreditu transferentzia modalitatean egin da, eta kreditua transferitzen eta jasotzen duten partidak hauek dira:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0500.480.01.231.00 2017	FAMILIEI.GIZARTE ZERBITZUAK	76.000,00	11.000,00	65.000,00
	GUZTIRA	76.000,00	11.000,00	65.000,00



Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0500.480.01.231.40 2017	FAMILIEI.GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK	164.434,00	11.000,00	175.434,00
	GUZTIRA	164.434,00	11.000,00	175.434,00

- **2017/2255 (2017/17 kreditu gaikuntza) Dekretuaren jakinarazpena.**

Hamazazpigarren espedientea kreditu gaikuntza modalitatean egin da, eta guztira 215.516 eurokoa izan da

2017ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 1100.131.01.241.00 2017	LABORAL EZ FINKOEN ORD.ENPLEGU SUSTAPENA	50.000,00
1 1100.422.01.241.00 2017	TRANSFERENTZIA UDALEI. ENPLEGU SUSTAPENA	112.500,00
1 1100.226.99.431.00 2017	HAINBAT GASTU. MERKATARITZA	15.600,00
1 0700.625.99.153.40 2017	EKIPAMENDUA. ZERB.OROKOR.LANTALDEA	37.416,00
	GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA	215.516,00

2017ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 410.02 2017	EUSKO JAURLARITZAREN ENPRESEN TRANSFERENTZI ARRUNTAK	162.500,00
a	2 410.01 2017	EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFERENTZI ARRUNTAK	53.016,00
		FINANTZAKETA GUZTIRA	215.516,00



- **2017/2319 (2017/18 kreditu gehigarria) Dekretuaren jakinarazpena.**

Hemezortzigarren espedientea kreditu gehigarrien modalitatekoa izan da, eta kredituen gehikuntza, guztira, 20.700 eurokoa da. Kreditu aldaketa honekin ez da gainditzen alkateak duen eskumena 2017an kreditu gehigarriak onartzeko.

Partiden aldaketen xehetasuna hau da:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0800.227.04.333.10 2017	KONTRATU SOZIOKULTURALA K. LEIDOR	155.900,00	20.000,00	175.900,00
1 1100.227.07.431.00 2017	ESTUDIOAK ETA LAN TEKNIKOAK. MERKATARITZA	16.000,00	700,00	16.700,00
GUZTIRA		171.900,00	20.700,00	192.600,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2017	ALTXORTEKIKO GERAKINA	20.700,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			20.700,00

- **2339/2017 (2017/19 kreditu gaikuntza) Dekretuaren jakinarazpena.**

Hemeretzigarren espedientea kreditu gaikuntza modalitatean egin da, eta guztira 21.698 eurokoa izan da



TOLOSAKO
UDALA

2017ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0700.601.01.153.20 2017	ERABILERA OROKORRERAKO URBANIZAZIOAK	21.698,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		21.698,00

2017ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 619.01 2017	Bestelako inbertsio errealen besterenganatzea	12.816,00
a	2 780.01 2017	Familien kapital transferentziak	8.882,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			21.698,00

OGASUN BATZORDEAK 2018KO OTSAILAREN 20AN EMANDAKO IRIZPENA:

2017/2361 (2017/20 kreditu transferentzia) Dekretuaren jakinarazpena.

Hogeigarren espedientea kreditu transferentzia modalitatean egin da, eta kreditua transferitzen eta jasotzen duten partidak hauek dira:



Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0700.421.01.162.10 2017	TRANSF. MANKOMUNITATEEI. HONDAKINEN BILKETA	865.000,00	20.000,00	845.000,00
	GUZTIRA	865.000,00	20.000,00	845.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0700.421.01.162.30 2017	TRANSF. MANKOMUNITATEEI. HONDAKINEN TRATAMENDUA	285.000,00	20.000,00	305.000,00
	GUZTIRA	285.000,00	20.000,00	305.000,00

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5. Dekretu honen berri ematea: 2017/2238 (4/2017 Kreditu gehigarriak). lurreamendi egoitza. 5. Dar cuenta del Decreto 2017/2238 (crédito adicional 4/2017 de lurreamendi egoitza).

Ogasun Batzordeak 2018ko urtarrilaren 30ean emandako irizpenaren berri eman du idazkariak:

“lurreamendi Egoitza. 2017/2238 (4/2017 Kreditu gehigarriak) dekretuen jakinarazpena.



TOLOSAKO
UDALA

lurreamendi Egoitzako laugarren espedientea kreditu gehigarrien modalitatekoa izan da, eta kredituen gehikuntza, guztira, 192.255,62 eurokoa da.

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.227.231.91.07.2017	ESTUDIOAK ETA LAN TEKNIKOAK	2.877.000,00	192.255,62	3.069.255,62
GUZTIRA		2.877.000,00	192.255,62	3.069.255,62

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.231.91.01.2017	KREDITU GEHIGARRIEN FINANTZ. APLIKATZEA	192.255,62
FINANTZAKETA GUZTIRA			192.255,62

Beraz, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- 6. Alkatezako dekretu hauen berri ematea:**
2018ko urtarrilaren 1etik 31ra (2018/1-2018/273).
- 6. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de enero de 2018 (2018/1-2018/273).**

Alkatezak 2018ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean (2018/1-2018/273) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.



7. 2018ko martxoaren 8ko adierazpen 7. Declaración institucional del 8 de instituzionala. marzo.

Parte-hartzeak:

... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Uste dut dena esanda dagoela mozio horretan eta bat egingo dugu, nola ez. Ez ditugu esandakoak berriro errepikatuko, azken batean besteak beste, bizitzaren arloko erroetara doan mozio bat da, zimenduak ezartzen ditu eta nola ezartzen diren gizarte honen habea. Azken batean, emakumea hor dago malgutasunarekin, bere renuntziak egiten bere lana bisibilizatuz eta guzti horrek ahalbideratzen du bestaldetik gizonezkoek ezeri renuntziarik ez egitea, beraien lanpostuetan aurrera egitea e.a. Askotan hitz egin dugu eta, luzez joan daitekeenez, ez dugu errepikatuko, baina askotan atera izan duena sistema patriarkala eta ematen du esandako jada egindakoak direla baina honetaz ari gara, egunerokotasunean egiten diren keinu txikiak. Inportantea da baita ere ikustaraztea eta egingo diren ekitaldi guztiak, baita grebarena ere. Azken batean keinu bat da, nolabait leloak esaten duen bezala, adierazi nahi da emakumeak egiten dituen gauza guzti horiek gabe mundua geldituko litzatekeela. Garrantzizkoa da ohartaraztea bai gizonezkoek eta baita emakumeek ere. Izan ere, askotan ematen du inertziak gauza asko egiten direla, norberak bere lanari balioa eman gabe. Beste gauza bat azpimarratu nahi nuke. Batzordean esan genuen, mundu guztian errepikatzen den gauza bat dela, nahiz eta, legearen aldetik egoera ezberdinetan egon. Azken batean, emakume izateak bere horretan berdina da ze klase sozialetan egon beti berez dakar bigarren mailako herritarra izatea eta uste dut hori adierazgarria dela, emakume guztiak konpartitzen dugun gauza bat dela. Iruditzen zait, ezberdintasun ezberdintasun noski, hori kontutan edukitzeko zerbait bat dela. Besterik gabe, azpimarratu, talde feministarekin ez da egon elkarlanean baina Udalaren jarrera irekia izan da, anekdota bezala zerbait gertatu dela pankarta batekin, agian hor langileen sentsibilizazio falta bat izanda, pankarta bat kendu dutelako, baina bueno printzipioz hori konponduta dago, ez da egon ardurak politikorik. Orokorrean bai azpimarratu nahi nuen hortik joan behar dugula, emakume guztiok bat egiten. Baita ere, azpimarratu ekitaldi ezberdinak egongo direla, ikuskizun ezberdinak, hitzaldi bat ere egongo da Emakumearen Etxearen ingurukoa, hor ere jarri daiteke hazi bat egitura hau aldatzen hasi daitekeen aukera. Hor badago erronka bat. Ea gure inguruan beste era bateko gizarteak egin dezakegun.”*

... Alkatea: *“Martxoaren 8ko Nazioarteko Emakumeen eguna da, aldarrikapen egun bat. Emakumeok eskubidedun gizakiak garela aldarrikatzeko. Aurtengoan emakumeek egiten duten lan ikusiezina aldarrikatzean jarri da azpimarra. Horren harira, nazioarteko mugimendu feministak paro deialdia egin du. Lehengo urtean egin zuen eta aurten, lehen aldiz egiten da gurean indar gehiagorekin. Berezia da deialdia nazioartekoa delako, nazioarte mailan genero ezberdintasun egoera ezberdinak egon daitezke ere, munduko emakume guztiok bat egiten dugulako egiturazkoa den ezberdintasuna ikustarazteko eta aldarrikapenarekin bat egiteko. Emakumeen lana ezinbestekoa da baina ikusiezina gehienetan, beraz, ez da baloratzen, badirudi ez dela egiten baina egiten da eta hor dago. Mozioan aipatzen da emakumeon gizartearen lanaren %56an portzentaian baldin bagaude ordaindu gabeko lanaren %76an egiten dugu. Nahiko esanguratsua da portzentaia.*



TOLOSAKO
UDALA

Gizartearen garapena ezin da neurtu bakarrik termino ekonomikoetan, zientifiko, teknologikoetan. Gizarte berdinzalea lortzea izan behar du baita ere munduko garapenaren helburua. Ez da etekin kontua, eskubide kontua baizik. Berdintasun sailetik ekintza programa antolatu da Martxoaren 8a parekidetasun batzorderako jo muga inportantea delako. Emakumeen nazioarteko egunaren aitzakian antolatutako ekitaldi guztietan parte hartzeko deia egin nahi dugu mozio hau onartzearekin batera eta bai aldarrikatu emakumeak ez dugula bigarren mailako herritarak izan nahi.”

Alkateak irakurri du 2018ko otsailaren 21ean Berdintasun Batzordeak egindako proposamena. Honela dio:

**“EMAKUMEKOK PLANTO/NOSOTRAS PARAMOS
2018ko Martxoaren 8ko Greba Feministaren aldeko adierazpen instituzionala**

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, “Emakumeok planto. Nosotras paramos” leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztiko ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren % 56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren % 74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako



TOLOSAKO
UDALA

emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira. Erantzukizunen desoreka eta gainkarga horren ondorioz, migratutako emakume askok lan-egoera onartezinak bizi eta jasaten dituzte, esklabotzaren muga kasu batzuetan. Hori guztia faktore bat gehiago da bere aurkako diskriminazio ugariaren zerrendan, eta kalteberago egiten du bizitza sozial, laboral eta pertsonaleko edozein eratako egoeretan.

Eta egiten dituzten zereginenez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonek denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana eta lan erreproduktiboa ezinbestekoak direla bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen eta lan erreproduktiboaren inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatzeko modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz, OHARTUTA, Tolosako Udalak hitza ematen du

- Emakumeen greba orokorrarekin bat egingo duela, Udal honi informazioa emanaz eta hura garatzeko bideak jarritz.*
- Baliabide material eta instituzional guztiak jarriko dituela Tolosan antolatzen diren elkarretaratze eta jardueren berri emateko.*
- Udaletxeko balkoian bandera feminista jarriko duela, emakumeen grebaren aldeko ikur gisa.*

1- Jarraituko duela, sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatzen, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzekeko guneak emakumeekin partekatuzeko.

2- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.



TOLOSAKO
UDALA

3- *Jarraituko duela udal politikan, programa eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko estrategia transbertsala garatzen.*

4- *Tolosako Jabetze Eskolaren bitartez balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak eta banakako eta taldeko emakumeen jabetzea susta daitezen .*

5- *Zeharkakotasunez sartuko dituela bere genero-berdintasunaren politika eta sentsibilizazio- eta formazio-programa guztietan sorburu, kultura eta erlijio desberdinetako emakume migratzaileen multzoak duen kalteberatasunaren irizpidea eta begirada.*

Azkenik, herritarrei dei egiten die modu aktiboan parte har dezaten, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan."

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak **aho batez onartu du** 2018ko martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

8. EAJ-PNV taldeak aurkezturiko mozioa: Saharar Errepublikari Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrena.

8. Moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV: 42 aniversario de la proclamación de la República Democrática Árabe Saharaui.

Parte-hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *"Egin ahala mozio hau babestu egingo dugu ez kontrakoa. Izan ere, urtero izaten dugu garai urte honetan irizpide Saharako arazoa eta sahararrak pairatzen ari diren sufrimendua, askatasun falta eta jazarpenak. Baina ez dira guztiak, ez dira izaten berri gaizto edo mingotsak. Gaur Sahara gatazkaren inguruan berri on bat izan dugu. Hain zuzen ere, lotuta dago gaurko adierazpenean irakurri dugun puntu horietako batekin. Izan ere, gaur*



TOLOSAKO
UDALA

Luxemburgo epaitegiak ebazpen bat eman du argitara non aztertzen den Europako Batasuna eta Marrokok sinatu duten arrantza hitzarmena. Horretan garbi esaten du epaiak hitzarmena bakarrik dagokiola Marrokoko soberaniapeko urei, alegia Marroko urei, ez dagokiola Saharako urei. Alegia, Europako Batasunak oso garbi eta garbi kontrolatu beharko du legea betetzeko Marrokok bere aldetik ez duela arrantza baimenak Saharako uretan ematen. Eta hori behartuko ditu ere Europako Estatuak zentzu horretan neurriak hartzeak. Hori positiboa da eta behintzat, berri ona Saharako kausaren alde. Izan ere, sahararrak izendatuak, sahararrak baztertuak izan dira makina bat aldiz, hasteko Espainiako kolonizatzaile aldetik eta jarraituta neurri askotan Europa Batasunaren aldetik. Aprobetxatuta Oria Tolosatik pasatzen dela eta munduan badaudela beste herrialde batzuk baztertuak eta nazioarteko komunitateak ahaztuta, gaur gogoratu nahi dut momentu honetan Sirian Kurdistanen gertatzen ari dena, kurduak jasotzen ari diren eraso Turkiaren aldetik. Ehunka hildako sortzen ari dira, nahiz eta guri bakarrik komunikabideetatik Damaskon gertatzen ari dena etortzen zaigun, lazgarria ere. Berriro ekarri nahi dut atzo Txekiako agintariek Salih Muslim Muhammad atxilotu zutela, Siriako kurduen Europako ordezkaria. Euskal Herrian izan genuen orain dela urte batzuk, ezagutzeko parada izan genuen eta, hain zuzen, akusazio faltsu baten pean beti herritarren eta herriaren eskubideen defentsan European egitea ebitatu nahi du Turkiak. Uste dut hori salatzea dela eta aprobetxatu dugu tarte hau bi herri jazarri, bi herri baztertu eta bi herri ingainatuen egoera adierazteko eta beraiei elkartasuna erakusteko.”

... Alkatea: *”Nazioarteko gaietan Iñaki da hemen daukagun aditu nagusia, orduan berak aztertzen ditu egokien gai hauek. Nik aprobetxatuko dut mozioa hau baita ere eskerrak emateko Tolosaldeko Sahara elkarteari burututako bilketa kanpainagatik eta baita ere, tolosarrei eta Tolosaldeko herritarrei egindako esfortzuagatik eta izandako elkartasunagatik. Bide batez, baita ere aipatu nahi dut Oporrak Bakean programa, ehun eta hogeita hamar lelopean Euskadi mailan ehun eta hogeita hamar harrera familia lortzea duena helburu. Hamar hamabi urte bitarteko haur sahararrak bidaiatuko dute gurera ekainetik abuztura bitartean. Facebooken ere jarriko da horrelako kanpaina bat 365 egun elkartasunean, 60 elkarteekin, oinarritzko beharrei aurre egiteko oraindik behar beharrezkoa dutelako kanpo laguntza. Sahararren errefuxiatu kanpalekuetan jaio eta haztera behartuak izan diren haurrak dira orain dela 42 urte euren lurraldetik Mendebaldeko Saharatik bota zituztelako. Horregatik gaur Saharar errepublika Arabiar demokratikoa aldarria egin zeneko 42 urteurrenean jasaten duten gaitzetsi eta bere eskubideak errespetatzea eskatzen duen mozioa daukagu orain irizpide. Bi milatik hona 18 urte hauetan ehunka haur eta ehunka harrera familiak parte hartu dute Oporrak bakean programan. Tolosaldean, batz bestea, gure eskualdean, hamabost bat harrera familiak eman dute izena programan eta zifra hori mantendu egin nahi dugu aurten ere. Bost familia badaude dagoeneko Tolosan beste hamar behar genituzke, beraz deialdia luzatu animatzeko programa oso malgua delako eta famili beharretara egokitzen delako. Eta informazio gehiago eskuratzeko Udaletxeko Gizarte Zerbitzuen sailera inguratu zaitezke edo baita ere Tolosaldea Sahararekin elkartearen bidez egin dezakezue.”*

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

“Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42.



TOLOSAKO
UDALA

urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Tolosako udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.- Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanpaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.- Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarria izateari utzi diezaion.

3.- Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600 km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.- Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenarekin bat etorriz, 2018ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera udaletxean zintzilikatzea adosten du.

8.- Aipatu den urteurrena dela eta, udalbatza honek bat egiten du 2018ko Otsailaren 27an arratsaldeko 18:30etan Tolosako Udaletxe aurrean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak deitutako elkarretaratzearekin, "Maroko Saharatik at Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lemapean."

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar,



TOLOSAKO
UDALA

Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin. Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrena dela eta, Tolosaldea Sahararekin elkarrearen mozioa.

9. Bandera espainiarraren inguruan **9. Moción presentada por el grupo**
EAJ-PNV taldeak aurkezturiko **municipal EAJ-PNV sobre la bandera**
mozioa. **española.**

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Alderdi sozialistatik gaur egungo markoa errespetatzen dugu, sententzi judizialak errespetatzen ditugu eta sententzia horien balorazioan ez gara sartuko. Horregatik nire botoa aurkakoa izango da.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Cristian Gobernuko kidea baina...iritziak iritzi. Ikurrina sinboloa da, ikur bat da, mozioak oso argi esaten duen bezala, eta Espainiar bandera beste sinbolo bat da, beste ikur bat da, eta ikur horrek euskaldunontzat, gehienetan, beti ez esatearren, inposaketa baten erakusle izanda. Eta Udaletxe honetara etorri den ebazpena ere horren erakusle da, inposaketa baten erakusle. Uste dugu Estatu Espainiarrak lan egiteko eta duen kultura demokratikoaren isla dela. Isla dela inposatzen digutelako bandera hor zintzilikatu behar dela, baina inposatzen digute beraien lege, araudi, beraien konstituzioaren bidez, guk eta guretzat, gure herriarentzako, gure herriaren kontra dihoazen neurri asko eta asko. Gaur bandera da eta gaur guri banderak eragiten digu zuzen zuzenean. Segapoto horrek hor zintzilikatu behar izateak, Katalanei 55 artikuluan, “Aviso a navegantes”. Hor daukagu, Audientzia Nazionalak zein euskaldun eta milaka euskaldunek jasan behar izan dituzten bertako sarekadak eta bertatik bideraturiko makroepaketak. Hor ditugu torturak, hor dugu aurreko astean Egunkaria ilegalki eta nahiz eta ilegalki itxi 15 urte itxia dagoela eta itxia dago. Gaur etorri da Egin egunkaria ere legezko kontra baino itxia dagoen egunkari horren artxibategia Eusko Jaurlaritzak berea egingo duenaren berria. Hor ditugu Gipuzkoa Foru Aldundiak bere garaian euskararen normalizazio hastapenerako lanaren aurkako dekretua eta bertan behera uztea. Hor ditugu prekaritatea, hor dugu lanaren erreformak, hor dugu dena. Espainia gaur egun guretzako, euskaldunontzako lastre bat da. Espainia demokraziaren ukazioa da eta lege horiek, legeak, gizartearen askatasun nahiak eta gizartearen gogoak asebeste behar ditu eta momentu honetan Espainiar konstituzioa justu kontrakoa herriarentzako. Gure kasuan, euskaldunontzako. Gure ustez hori da Estatua eta espainiar bandera eta hemen jaso dugun ebazpena horren erakusle besterik ez da. Inposaketa guzti horren erakusle. Ez da lehengo kapitulua eta ez da azkena izango. Aurreko legealdian beste kapitulua jasan izan genuen eta beste modu batera erantzunez bandera txiki batzuk alde batean jarriz erantzun genien. Orduan, gu geunden Udal gobernuan, eta orduan erantzun bateratua ematen saiatu ginen, ez genuen lortu. Gure ustez, herri bat erasotua den neurrian erantzunik hobena herriak ematen du eta herriak erantzuten duenena modu bateratuan erantzun behar du.*



Beraz, nortasun kolektiboetara erantzun kolektiboak eta bateratuak eman behar dizkiegu eta guretzako, eta horregatik gaur mozioa babesteko dugu, baina erantzun bateratua ez da soilik moziora mugatu behar. Guretzat erantzun bateratua herriaren eraikuntzak datza, gure ikurrak, gure pentsioak, gure lan harremanak, gure hizkuntza sustatzen eta horien gainean erabakitzen. Momentu honetan, Espainiaren bidez, ez daukagulako horien inguruan erabakitzeko eskubiderik. Eta eskubideri hori gauzatzen ez den bitartean gure egunerokoan kalte egiten diguten neurriak aplikatzen dira, non eta Madriletik. Beraz, legedi honek kalte egiten digu eta horregatik inposaketa horren aurka egon eta Udal Gobernuarekin, bere garaian egin ez zen moduan, modu bateratuan, erantzunez eta adostasunez, bat egingo dugu mozio honekin.”

... Alkatea: *”Bakarrik esan lehenengo kapituluak ez zela izan aurreko legealdian lehenago ere, herri honek eta udaletxe honek izan ditu beste kapituluak. Baina egia da ez dut uste nik ere bi alderdi abertzaleen arteko ezberdintasunak areagotzeko balio behar duenik mozio honek. Espainiako Gobernuko delegatuaren errekerimenduak Tolosako Udaletxearen fatxadan dago, Espainiako batasuna aldarrikatu nahi duen ikurra, inposizioz eta ez herriaren aldarriaz. Eta horren testigantza emango du lehen Gipuzkoako Foru Aldundian Euskal Herriko beste hainbat herrietan eta orain baita ere Tolosan mozioan adierazten bezala jarriko dugu aitortza horretan. Fatxadaren erdian, tamaina jakinekora eta haizeak mugitzeko modukoa. Erabakia Espainiako bandera hori jartzeko erabakia ondorioak jasango dituenak hartu du, nik neronek. Desakatoak eta inhabilitazioak ez lukeelako inposizioa gaituzko eta inposizioaren betebeharra beste Udal ordezkari baten bizkar gainean geratuko litzatekeelako hartu dut erabakia inposizioaz bada ere epailearen erabakiaren men egitekoarena. Herri honek mendeak daramatza bere eskubide historikoak aldarrikatzen, bide politikoaren bidez, nazio eraikuntzan aritzeko aldarrikapenean. Horregatik, guztiagatik, nik gauza adierazi nahi dut, hemen, badela herri bat, euskaldunon eta euskararen herria, aberria, zeinek oso errepresio gogorra jasan duen Euskadi edo Euskal Herria aberritaz zuen kontra, bai diktadura garaian eta baita ondorenean ere. Pirinioetako bi aldeetan ikurrina dugu bandera bakartzat. Zazpiak bat armariak irudikatzen du gure ametsa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nafarroako Foru Erkidegoa eta Pirinio Atlantikoak zazpiak bat egingo dituena. Ikurrinaren aldarrikapenak gatazka handia sortu ditu gure herrian, diktadura garaian batik bat, Gaur egungo garai politikoak elkarbizitza du hizpide, herrian azken hamarkadetan zer gertatu den edo zer gertatu zaigun aztertu eta memoria historikoa lantzen ari gabiltza herri askotan. Egia, justizia eta erreparazioa gure ordenamendu juridikoan barne hartuta, iraganaren kontakizuna garrantzitsua delako elkarbizitzan oinarritutako etorkizuna lantzeko. Adinez nagusia den gizarte honek erabakitzeko eskubidea duela baieztatuz adierazi nahi dut ikur honen inposizioak ez duela lantzen gabiltzan elkarbizitzan laguntzen. Are gehiago, mesede gutxi egiten diola uste dut. Horregatik, aldarria, herriaren ordezkaria naizen aldetik eta herriaren sentsibilitate guztiak errespetu osoa izanagatik ere, adierazi nahi dut aipatutako inposizioaren aurrean badagoela hemen herri bat nortasun kultura eta izaera propioa duena euskaldunon eta euskararen herria.”*



TOLOSAKO
UDALA

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

“Tolosako Udaletik, Tolosar herriaren erakunde gorenetik, gure herriarekiko daukagun konpromiso etenezina berresten dugu.

Gizartearen borondate askearekiko gur konpromisoa. Konpromiso hori betez, esaten dugu ezin zaiola uko egin euskal herriaren izatea aitortzeari eta euskal herria borondate kolektiboa duen subjektua den kultura, ekonomia eta politika aldetik.

Urte osoz, berresten dugu, Euskal herritarren erabakitzeko ahalmenaren aitortza, ezinbesteko eskubide demokratikoa dela. Euskal gizarteak, bere aniztasunetik, behin eta berriro adierazi du, erabakitzeko eskubidearen aldeko iritzia.

Aniztasuna mantentzeko demokraziak eskaintzen duen bermea, nahi kolektiboa gauzatzeko aukeran dago; subiranotasun horietatik ez datozen nahi kolektiboen instituzionaltzea baztertzen duten, nazioen subiranotasunen betorik gabe gauzatzean.

Bere burua horrela definitzen duen edozein demokraziaren funtsetako bat da aniztasunarekiko izan behar duen errespetua. Baina aniztasuna ez da bitarteko erretoriko bat soilik, norbanako zein taldeko eskubide oro errespetatuko dituen bizikidetzaren oinarria baizik.

Argazkiak unformatu nahi izateak totalitarismora eramaten du, inoiz ez bizikidetzara.

Beraz demokraziaren uste sendo hauetatik oso urrun dago gure erakunde guztietan bandera espainiarra ezartzea, eta gainera, “ordezkatzten dituen konstituzioaren balio, printzipio, eskubide eta beharren” eta “Estatu espainolaren, batasun, independentzia, subiranotasun eta zintzotasunaren” adierazpen gisa egitea.

Horregatik, agindu judizialari zor zaion errespetua eta epaia nahi eta nahiez bete beharraren aurrean, baina gure ardurari aurre eginez, ondorengo hau onar dadin proposatzen dugu:

Tolosako Udalbatzak, inposizio hau desagertu artean plaka bat jartzea onartzen du ondorengo testuarekin:

“Herri bat herri da, iragan eta etorkizun, osatzen duten pertsona gehienek hala sentitzen dutenean. Ikur bat ikur da: logo, oihal zati, margo. Gertatu ohi da ikurra herri baten ametsaren sinbolo izatea. Orduan baliagarri da, gutasunaren sentipen txikien piztaile delako, ez gehiago.

Gerta liteke ikurra herriaren ametsaren sinbolo ez izatea. Indarraren legez eta legearen indarrez ezarria izatea. Orduan ere baliagarri izan liteke, inposaketaren sinbolo bihurtzen baita, bizilegezko gabezien gogoratzaille.

Bandera espainiarra zigor mehatxupean ezarritako sinboloa da gure erakundean. Tolosar gehienon nahiaren aurka eta beren ordezkarien erabakimenaren kontra jarrai dago. Herritarren borondatearekiko errespetu falta da, askatasunez



TOLOSAKO
UDALA

erabakitzeko eskubidearen ukapena. Horra bada bandera, egoeraren ikur, jarri duenak berak jarri nahi ez duen oihal, haizeak ironiaz darabilena.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Aurkako botoa: Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du bandera espainiarraren inguruan EAJ-PNV taldeak aurkezturiko mozioa.

10. Galderak eta eskaerak.

10. Ruegos y preguntas.

Atal honetan ez da, ez galderarik, ez eskaerarik izan.

11. Zinegotzi baten kargu-uztearen berri ematea.

11. Dar cuenta de la dimisión del cargo de concejal.

... Alkatea: *“Gure partetik behintzat, eskerrak hemen egindako lan guztiagatik. Badirudi zure lana pertsonalak eta partikularrak eta profesionalak ez dizuela uzten udaleko gaiei behar duen arreta eskaintzen, beraz, orain, egindako guztiagatik bai hirigintzan, bai berdintasunean eta ibili zaren arlo guztietan, benetan herrigintzan ibiltzen diren pertsonak gainera oso era eskuzabalean ibiltzen direlako, eta batzuetan ez delako beti atsegina izaten, izan ere, izaten dira debateak eta kristantzak, eskerrik asko egindako lanarengatik.”*

... Maria Lasa Arruabarrena (EHBildu): *“Izango dira jada hiru urte ilusioz eta laneko gogo handiarekin jada martxan zegoen talde batean sartzeko erronka hartu nuela. Esan beharra daukat hasiera hasieratik errespetu handiz hartutako erronka izan zela, izan ere, hementxe esertzen garenetik herritarren ordezkari txiki bat bihurtzen gara eta hori erantzukizunez erantzutea dagokigu hemen gauden guztioi. Oposiziotik ari garen lanean, bakoitzak bere lan profesionalak ditugu eta Udaleko erritmoari ahal dugun neurrian erantzuten eta uztartzen saiatzen gara eta hondar aletxoak ematen. Eta esandako horretan oinarrituta, Olatzek esan duen bezala, oraintxe bertan, behintzat ezinezkoa egiten zait erantzukizunez, honi fundamentuz*



erantzutea. Egoera honen aurrean zentzuzkoena iruditu zaigu egoera onartu eta taldetxo hau indartsu mantentzeko badagozkion erabakiak hartzea. Indarrez jarraitzeko taldean lanean Cristina sartuko da hemendik gutxira jarraikotasun hori emateko. Herritar aktibo izaten jarraitzeko asmoa daukat eta, noski, gertutik jarraituko ditut hauen pausoak ere. Baina ez dut bukatu nahi zuei eskerrak eman gabe, izan ere, hasiera hasieratik, lehenengo egunetik nere lehenengo urratsa horiek besarkatuta eman ditut eta denbora guzti honetan beraien babes eskaini didate, bat gehiago sentiarazi didate eta asko-asko erakutsi didate. Beraz, eskerrik asko zuei gehienbat, bidelagun izateaz gain, lagun izateagatik.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Ohore bat izanda eta argi dago bizitza profesionala, lana, lanetik atera, plenoa, batzordea, bilera, badakigu zer den. Hala ere, hemen gauden guztiok edo gu taldetxo honetan sinisten dugun herri hobe, aske eta justuago batean, eta badakigu borroka horiek ematen direla hemen, ematen direla kalean, ematen direla mila esparruetan. Orduan, hemengo esparruan, hurrengoan hor egongo zara eta kalean jarraituko dugu elkarrekin eta eskutik bidea egiten, hemendik kanpoan badago zer egina, argi dagoen bezala. Beraz, eskerrik asko, denon izenean eta gero arte.”*

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) taldearen zinegotzia den Maria Lasa Arruabarrenak karguari uko egin dio dagokion idazkia aurkeztuz. Egoera hau aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Eraentza Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren 182. Atalean xedaturikoa kontutan harturik, Udalbatzak honako hau

La concejala del grupo EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU), Maria Lasa Arruabarrena, presenta mediante el correspondiente escrito su dimisión del cargo de concejala del Ayuntamiento de Tolosa, y considerando lo dispuesto por el artículo 182 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, el Pleno de la Corporación municipal

ERABAKI DU

Lehen.- Jakinaren ganean geratzea EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) taldeko Maria Lasa Arruabarrenak zinegotzi karguari uko egin diola.

Bigarren.- Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) taldeari dagokion hautagaiari zinegotzi kargua eman diezaiola.

ACUERDA

Primero.- Tomar conocimiento de la renuncia del cargo de concejala de Maria Lasa Arruabarrena, por el grupo político EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU).

Segundo.- Solicitar a la Junta Electoral Central que designe al candidato de EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) que corresponda para que desempeñe el cargo de



TOLOSAKO
UDALA

Hirugarren.- Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.

concejal.

Tercero.- Comunicar este acuerdo a la Junta Electoral Central.

Besterik gabe, 20:50ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, idazkari naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA